



Ebazpena, 2020ko maiatzaren 11koa, Ikastetxe eta Plangintzako zuzendariarena, musika-irakaskuntzako ikastetxe pribatuentzako diru-laguntzen prozedurarekin jarraitzearen aldeko borondatezko adierazpena aurkezteko modua ezartzen duena. Prozedura hori Hezkuntza sailburuaren 2019ko azaroaren 26ko Aginduaren bidez deitu zen, musika-irakaskuntzako ikastetxe pribatuentzako diru-laguntzen deialdia egiteko (2019ko abenduaren 10eko EHAA, asteartea).

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 26ko Aginduaren bidez (2019ko abenduaren 10eko EHAA, asteartea) musika-irakaskuntzako ikastetxe pribatuentzako diru-laguntzen deialdia egin zen, eta deialdi horren 10. artikuluan Ikastetxe eta Plangintzako zuzendariari esleitu zitzaion laguntza horien kudeaketa.

Emakida-prozedura izapidetzen ari denez, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 1. paragrafoak (COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena) administrazio-epeak eten du, eta, beraz, egun horretan amaitu gabe zeuden epeak edo data horretatik aurrera hasi beharrekoak ezin dira amaitu. Beraz, ezinezkoa da izapidetzen ari den prozedura bat amaitzea, etete horrek prozeduran ezarritako eperen batean eragina izan badu.

Hala ere, prozedurak amaitu arte jarrai dezake, baldin eta, 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 3. zenbakian berariaz jasotakoa aplikatuz, interesdunak adierazten badu ados dagoela epea ez etetearekin eta, beraz, prozedurak jarraitzearekin.

Jakina, prozedura amaitzeak, dagokion ebazpena emanda, aukera emango du ordainketak deialdian adierazitako moduan egiteko.

Ebazpen honen xedea da interesdunek 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 3. zenbakian jasotako kasua gauzatzeko erraztasunak ematea, prozedurak aurrera egiteko baimena aurkeztuz.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. - Prozedura bat ezartzea, Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 26ko Aginduaren bidez (2019ko abenduaren 10eko EHAA) deitutako musika-irakaskuntzako ikastetxe pribatuentzako diru-laguntzen prozeduran eskabidea aurkeztu duten pertsonak ados egon daitezzen prozedura horretan epeak ez etetearekin eta ebazpena eman arte prozedurarekin jarraitzearekin, laguntza onartzeko geroko izapidea barne, atal honen arabera: Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 3. Artikulua. Errege Dekretu horren bidez, alarma-egoera adierazten da COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko.

Bigarrena.- Prozeduraren jarraipenean baimen hori adierazi nahi dutenek berariaz jakinarazi beharko diote Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari, ondoren ageri den eranskina ereduia betez eta beren espedientean aplikazioaren bidez sartuz egin ahal izango dute.



Hirugarrena.- Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan (<https://euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/ebazpenak/>) eta Hezkuntza Sailaren webgunean (<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus>) argitaratzeko agintzea.

Argitalpenaren berri emango zaie interesdunei SMS edo posta elektronikoko bidez. Abisu horiek ez dute, inola ere, jakinarazpen-ondoriorik izango, argitalpenarekin batera gertatzen bait da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 11

Eugenio Jiménez Ibáñez
IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIA



ERANSKINA
EPEA EZ ETETEAREN ALDEKO ADIERAZPENA

.....zentroak (IFK:.....)
musika-irakaskuntzako ikastetxe pribatuntzako diru-laguntzak emateko prozeduran
(Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 26ko Aginduaren bidez deitu zen
prozedura hori (2019ko abenduaren 10eko EHAA, asteartea), 463/2020 Errege
Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 3. zenbakian ezarritakoarekin bat
etorriz.

ADIERAZI DU ADOS DAGOELA prozedura horren epeak ez etetearekin eta amaitu
arte prozedurarekin jarraitzearekin.

.....-n, 2020ko maiatzaren(e)an